



BASTIDA, Mari Sol
Memoriak. Mikel Laboaren biografia bat

Donostia : Elkar argitaletxea, 2014
 388 or. : ir. ; 16 cm
 ISBN: 978-84-9027-273-2

Mari Sol Bastida, unibertsitatean ekonomia irakasle izandakoa, Mikel Laboaren emaztea, maitalea, laguna, eta musikariaren mireslea, kritikoa, laguntzaile artistikoa eta asesoreak elkarrekin berrogei urteetan bizi izandako gora beherak, joan etorriak eta tira birak irakurle-arekin partekatzen ditu modu pausatu, lasai, goxo eta erakargarrian. Irakurlea modu naturalean, konturatu gabe bereganatzen du, beraien istorioan sartzen du. Horrela 1950. urtean Donostian hasi eta 2008. urtean hiri berdianan bukatzen den istoria konpartitzera gonbitea egiten du idazleak.

Bizi izandako ibilbide profesionalak 1960. hamarkadan du hasiera, orduan hasi zen Mari Sol Bastida notak idazten baita disko, dokumentu, elkarrizketa, artikulu, gutun, lekukotza eta oroitzapenak jasotzen ere. Nota horiek apurka apurka sendotzen joango ziren eta bizi izandako esperientziak, iruzkin ezberdinak eta gogoetekin osatuz joan da, egun esku artean dugun liburua osatu arte.

Momentura arte Mikel Laboaren bizitza eta ibilbideaz liburu bakarra argitaratua izan da, Peio Urzelaia (1995) Elkar eta Aek-rekin kaleraturiko *Mikel Laboa*, horregatik kronologikoki antolatuak dituen zazpi atalez osaturiko memorien liburu honek M. Laboaren ibilbide profesionalaren eperik eta momentu azpimarragarrienak testuinguruan eta musikariaren nortasunarekin agertzen ditu, informazio iturri ezin hobea izanik.

Lehendabiziko atala *1950eko udaberrian* hasten da Donostiako Artzai Onaren plazan, Mikel Laboa eta Marisol Bastidaren arteko lehendabiziko hartu-emanen lekuan.

Elkarrekin Perlan egingo zuten lehendabiziko dantzarako hiru urte itxaron bitartean, Avenidatik, Kontxako pasealekutik edota portutik jarraituko zituen Mikelek Mari Solen joan etorriak, gazte askoren topaleku ziren tokietatik, irakurlea garaiko Donostian kokatuz (1950).

Ikasketez zein bide profesionalen hastapenez mintzo da Bastida, eta Mikel Madril, Iruñea, Zaragozan eta Bartzelonan egonagatik eta Mari Sol Bilbon, Londresen baita Bartzelonan ere, beraien arteko harremana gero eta estuagoa bilakatu zen.

Zaragozako egonaldian (1962) izan zuen Mikel Laboak euskal kanta tradizionalekin lehendabiziko kontaktua, bertan *Club de Disque basque* bilduma eta Riezuren *Flor de canciones populares vasca* kantutegia ezagutu zituen, ondorioz sorburura itzuli eta euskaraz kantatzen hasiz.

Bartzelonan egindako egonaldiak (1964) berriz, jende ugari eta ezberdina ezagutzeko parada eman zien, medikuntzaren zein kantu eta antzerki munduko jendea ezagutuz. Denborarekin harreman horiek zaindu eta sakonduz joango zen, bere ibilbide musikalean isla izango zutelarik.

Bigarren eta hirugarren ataletan, *Amara Zaharra: nire familia* eta *Parte zaharra: Laboatarrek*, idazleak Bastida zein Laboa familien jatorria eta nondik norakoa kontatzen ditu, beti ere garaiko testuinguru politiko kulturala irakurleari gerturatuz.

Bi sendiak Donostiako Amara eta Alde Zaharreko langile familiak ziren, nahiz eta Mikelena egoera ekonomiko eta sozial onekoa izan, familia xumea zen. Biek testuinguruaren baitan egoera desberdinak bizi izan zituzten, Laboatarrek Gerra zibilean aitaren erbesteratzea

ezagutu, eta euren buruak babesteko ethez aldatu beharra pairatu zuten. Mari Sol Bastidak berriz, txikitan aita galdu zuten, eta garai hartan emakume batek bi seme alabekin aurrera egitea zer zen agertzen duen, bere ama oritzean emozionatuz eta aitak txikia zenean utzitako utsunearen pisua agertuz.

“Elkarrekin amets egitea eta batak bestea bereganatzea”

Ondorengo ataletan bikotearen joan etorriak irakurlearekin konpartituko ditu, Mikel Laboaren ibilbide profesionalarekin harremana duten lau epealdi bereiziz. Memorien laugarren atalak 1964-1980 urte bitartean bizi izandako esperientziari erreparatzen dio, bien bide profesionalak gauzatu zirenekoa.

Bikotea bizilekua Donostian bazuen ere lan kontuengatik Bartzelonara joan etorri ezberdinak egin behar izan zituen. Hala ere Donostian zeudela zinera, musika kontzertu ezberdinetara joatea zuten gustuko baita kultur mailako interesa ere, eta interes horren ondorioz agian jarri zen Mikel Laboa *Jarrai* antzerki taldearekin harremanetan (1964), eta orduan kaleratuko zuten Goiztiri diskoetxearekin lehenengo diskoa.

Bartzelonara egindako bisitak ez ziren oharkabean pasatu bikotearen bizitzan, eta Laboak egonaldi hartan *Els Setze jutges* eta Raimonen kontzertua ikusteko parada izan zuten, hunkituta geratu eta *Nova Cançons* antzeko taldea Euskal Herrian egiteko gogoia sortu zitzaion, ez *dok amairu* (1965) eta kultur gintzako jendearekin harremanetan jarri zuten. Ordurako M. Laboaren errepertorioan ezinegon soziala nabaria zen.

Liburuan Mari Solek jasotzen duen moduan biak *pertsona idealistak ziren eta beraien desira mundu libreago, zuzenago eta gizatiarago baten eraikuntzari ekarpen txiki bat egitea zen, eta euskal kulturaren suspertze eta garapenean laguntzea.*

Katalunian emandako denbora haur autistekin lan egiteaz gain, sormen lanetan aritu zen, ondorioz Kataluniari esker ona emateko *Assentire de Grat* kantua sortu eta bigarren diskoa grabatu zuen, nahiz eta egoera politikoa medio Iparraldeko Goiztiri diskoetxearekin argitaratu behar izan.

Horrela, kanta tradizionalaz gain, olerkari garaikideen lanak musikatzen hasi eta 1968. urtean bide esperimentalari ekin zion, urte bete beranduago *baga biga higa, Lekeitio 2* kanta esperimentalari Avilan estrenatuko zuelarik.

Ez dok amairu taldea desegin (1972) eta bi urte beranduago *Bat-hiru* diskoa kaleratu zuen, harrez gero *Txoria txori* kanta famatua eginez. Beste ekintza eta sormen lanez gain, aipatzeko da 1977. urtean guztiz berritzailea izan zen skecht moduko kanta Bilbon estreinatuta izana, *Komunikazio-inkomunikazio, Lekeitio 5.*

1974 eta 1980 bitarteko urteak bete beteak izan ziren guretzat. Izan ere, urte haietan, Mikelek lan handia egin zuen musikaren alorrean, eta orduan heldu zen dudarik gabe bere ibilaldiko gailurretako bat izan zenera: kontzertu asko, bai banakakoak (24 orduak euskaraz, “Herri Iberiarren jaialdia”, bai euskarari), bai taldekakoak (Ikimilikilik ikus-entzuneko ikuskaria), funtsezkoak izango ziren pieza berrien sorrera eta, 1980an, LP bikoitz berri baten grabazioa (“Lau-bost”), eta hura guztia San Miguel patronatuko kontsultarekin egiten zuten mediku-lanarekin bateraturik. (200)

Hamarkada oparora izan zen hirurogita hamargarrena, eta ondorioz Mikelek etenaldia egiteko beharra somatu zuen, nekea eta kantagintzaren erabilera politikoa medio.

1980-1997 urte bitartean liburuaren bosgarren atala hartuko dute. Hamarkada berriari heriotzaren presentziak hasiera eman bazion, bikoteak seme alabekin aurrera egin zuten, Mari Solek unibertsitateko oposizioa gainditu eta Mikelek berriz ere publikoaren aurreko agerpena prestatzen aritu zen. Oholtza gainera berriz agertu bitartean medikuntza utzi eta musikagintzan aldaketak eman zituen, Iñaki Salvadorrekin lanean hasita (1984) eta hiru urte beranduago Josetxo Silgueroarekin jarraituz.

Ondorioz, hamarkada berriko emanaldiko programa, soinua, argiak, antolamendua eta kontzertuen prestakuntzak aski pentsatuak izan ziren, emanaldi *bariatu eta berritzailea lirismoa, hunkigarritasuna, umorea eta indar handikoa* eskainiz.

Nahiz eta osasun arazoak berriz ere presente izan (1985), agerraldiekin jarraitu eta *Sei* izeneko diskoa grabatu eta musikari gehiagorekin oholza gainean agertu zen Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionaindiaren olerkiak musikatzuz eta kanta tradizionalak zein bide esperimentaleko lanak aurkeztuz eta grabatuz, *Lekeitioak* (1988) eta *Hamabi* (1989).

Emanaldi eta sormenari dagokionez urte oparoak izan ziren, Hegoaldeko zein Iparraldeko herri ezberdinetan kontzertu ugari eman zituen arren, Gernikan bonbardaketaren 50. urteurrenereko bezperan emandakoa berezia, sentimenduz betea, ezin hobea izan zela gogoratzen du Mari Solek.

1990. hamarraldia omenaldien garaia izan zen Mikelentzat, *Txerokee*, *Zilbor hestea* edota Donostiako musika hamabostaldia, nahiz eta sormen lanarekin aurrera jarraituko zuen, *Hamalau* (1994). Hamarraldiaren bigarren erdialdean kontzertu ugari eman zituen, eta Mari Solentzat denek zerbait berezia eta aipatzekoa duten arren, 1997. urtean Donostiako Anoeta Estadioan Euskadiko Gazte Orkestra eta Donostiako Orfeoiarekin Musika Hamabostaldiaren barruan eskainitako kontzertua Laboa musikagintzan toki berezian kokatu zuen. *Baina hura guztia, arrakasta eta aitortpena, Mikelen ezaugarri pertsonaletan oinarritzen zen, aurrera egitera bultzatzen zuen barneko premia hartan, eta jadanik zenbait hamarraldi luze bazen, bakarka batzuetan eta elkarlanean besteetan, lan-historia batean.*

Hurrengo urteak 1997-2005, memorietako seigarren atala, ez ziren bikotearentzat urte errazak izan, ezta ondorengoak ere, baina artearenganako eta euskal artistenganako miresmena eta harremana mantendu zuten, arteak *bizitzen lagundu duen gauza da, edo guri lagundu digula behintzat, aztoramendua, emozioa, dibertsioa, jakinduria, kontsolamendua eransten baitzitzio bizitzari.*

Mikel nekatuta egon arren, kontzertuak (Gara egunkariaren alde, *Bai euskarari*, Milurteko jaialdia Palau de la Música Catalana, Glasgowko Musika Zeltaren Jaialdia), sormen lana eta proiektuekin aurrera egiten zuen *Gernika-Zuzenean 2* (2000) diskoa eta *Mikel Laboa 60ak +2* (2003) kaleratuz.

Osasun arazoak geroz eta presentetago zeuden M. Laboaren egunerokoan eta bere izaeran eta harreman pertsonalean eragina izango zuten, baita maila profesionalean ere, zuzeneko emanaldiak egin nahi eta ezintasunaren oinazea eta *Xoriek* (2005) diskoa grabatzeko gora beherak lekuko.

2005-2008: azkena

Bakearen aldeko kontzertua, azkena izango zena prestatzen eman zuten 2005 urtea M. Laboak eta M. Bastidak, bitartean osasun arazoek beraien harremana eta Mikelen bizitza profesionala nahi baino gehiago baldintzatzen zuten arren, kontzertu hura ondo atera zen (2006). Aurreko udetan bezala, Baztan bailarara joan ziren, bikoteak ohikoa zuen moduan, bertan indar berritu eta Nafarroarekiko lotura berretsiz, eta proiektu ezberdinetan parte hartzeko gogoia berpiztuz (*Nomadak Tx* filma, *Lekeitioen* bilduma). Artearekiko interesa eta ilusioa mantendu zuen Laboak, indarra poliki poliki agortuz joan arren, bikotearentzat momentu ederrez beteriko uneak izan zirela aitortzen du Mari Solek, nahiz eta hilabete haiek azkenak izango zirela somatu ez.

“Ona artista gisa, eta ona persona gisa” (Chillida)

Mikel Laboaren musikagintzaren esparrua oraindik ere gutxi aztertua izan den momentu honetan, eta askotan bere obra eta bizitzaren inguruan eman izan diren datuak argitzeko ezinbestekoa bilakatzen da eskuartean dugun liburu hau.

Mari Sol Bastidak eskeintzen dizkigun *memoriak* Laboaren izaera, pentsaera eta interesak ezagutzeko parada ematen digu, bere ibilbide profesionala eta sormen prozesua ezagutzeko eta ulertzeko giltza.

M. Laboaren obra hobeto ezagutzeko dokumentu ezin hobea eskaintzen digu Mari Sol Bastidak, bere pentsamenduak eta sentimenduak irakurlearekin konpartituz eta bihotza irekiz.

Auritz Autenetxe Zalbidea